

NOS MUEVE GETXO BAT EGINIK




AMAIA AGIRRE MUÑOA

GETXOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE **PROGRAMA 2019-2023**

www.amaiagirre.eus

 Amaia Agirre Muñoa

 @amaiagirremunoa





Gure ametsa Getxo bultzatzea da, zurea ere bai?

Getxoren etorkizunerako proiekturik onena sortu dugu, gure udalerriko herritarrek, merkatariek, ekintzaileek, elkarteek, gazteek, adinekoek eta beste askok esan digutena entzun eta gero.

Katea ez da eten, 124 urteko ibilbide luzean lana, konfiantza eta zintzotasuna erakutsi eta sortu dituen alderdia gara. Gure kasuan, Getxok bultzatzen gaitu Euzko Alderdi Jeltzaleko emakumezkoak zein gizonezkoak; hori da gure konpromisoa eta berori da Getxo amesgarria lortzeko izango den zeure proiektua, bertan hazteko, bertan bizitzeko, bertan lan egiteko eta bertan gozatzeko tokirik onenetarikoa izan dadin.

Josean Artze olerkari eta musikariak esan zuen legez: *“Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berria den ura, betiko iturri zaharretik”*.

HAUTESKUNDE PROGRAMA 2019-2023

1. GETXO, AMETSEN HERRI ETA ILUSIO HANDIEN SORLEKU

- Ilusioa pizten diguten konpromisoak

2. GETXO, ELKARTUA ETA ANITZA

- Emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna
- Helduaroa eta zahartze aktiboa
- Gizarte-arreta
- Bizikidetza eta kulturen arteko loturak.
- Haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa

3. GETXO, EKONOMIA ERABERRITZEAREN ETA SORMENAREN GUNEA

- Getxo ideien, berrikuntzaren eta sorkuntzaren laborategia
- Merkataritza eta zerbitzu profesional aurreratuak
- Getxo sortzailea eta ekintzailea
- Turismoa eta Aisialdia

4. GETXO, KIROLAREN HIRIA BIZKAIKO BADIAN

- Aisialdi osasungarria eta kirol-jarduerak
- Harremanak klubekin
- Abra

5. GETXO, EMOZIOEN ANTZOKI ETA ABANGOARDIA SORTZAILE

- Muxikebarri Arte, Kultura eta Kongresuen zentro berria
- Romoko eta Villamonteko kultur etxeak
- Balio kulturala duen ondare eraikia

6. GETXO, HIRI-INGURU SEGURUA, IRAUNKORRA ETA INGURUMENA ZAINTZEN DUENA

- Etorkizuneko Getxo diseinatzea
- Hiri-inguru iraunkorra
- Ingurumenaren iraunkortasuna
- Udalerri garbia
- Udalerri segurua

7. GETXO, MUGIKORTASUNAREN ETA IRISGARRITASUNAREN ERREFERENTE

- Espazio irisgarriak
- Bidegorriak eta aparkalekuak

8. GETXO, ETXEBIZITZAREN ALDEKO POSTURA ARGIA

- Hirigintza-antolamendua eta Babes Publikoko Etxebizitzak
- Bizikidetza eredu berriak

9. GETXO, GARDENTASUNAREN ETA PARTE-HARTZEAREN EREDU

- Herritarrei eskainitako arreta hobetzea
- Herritarren parte-hartzea
- Gardentasuna

10. GETXO, KOSMOPOLITA ETA EUSKADIN SUSTRAITUA

- Euskara eta euskal kultura
- Munduari zabalik

1. GETXO, AMETSEN HIRI ETA ILUSIO HANDIEN SORLEKU

Berrikuntzaren eta oparotasunaren sinonimo, Getxok bere izaera gordeta egiten du aurrera XXI. mendean hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko udalerririk onenen artean.

Getxok, bizi-kalitatearen erreferentzia izanik, aurrera egiten du ekipamenduak, zerbitzuak, irisgarritasuna, parkeak, plazak, pa-sealekuak, hondartzak, kiroldegia, bidegorriak eta beste asko barruan hartzen dituzten etengabeko hobekuntza-proiektuekin, modu parte-hartzaile eta iraunkorrean betiere.

Ilusioa sortzen diguten konpromisoak:

- Gure udalerraren balioak eta indarguneak sendotzea erraztuko duen etorkizuna diseinatzea. Getxo berritzailea, iraunkorra, lagunkoia, osasungarria, berdea eta emakumeen eta gizonen neurrikoa: etorriko diren belaunaldiak etorkizun hobea izatea erraztuko duen **Getxoren Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria**.
- **Fadura herritarrentzako espazio ireki berri bat bihurtzea**, guztiok sartzeko moduko kirol-parkea eta Getxo Kirolak delakoan bazkide direnentzako kirol-instalazioak bateratuko dituen: Thinking Fadura prozesua.
- Herritarrei bizi osoan zehar bizi-baldintzarik onenak izaten laguntzea: **adinekoentzako egoitza eta gazteentzako hornidura-bizitokiak** uztartuko dituen belaunaldien arteko zentro berritzailea Romon. Egitasmo aurrelaria da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzan egingo dugu zentro hori.
- Getxo Euskadiko kulturaren arloko lehenengo postuan jartzea. Kultura herriaren osagai bereizgarri bihurtzea, erakusketa, sorkuntza, prestakuntza eta kultura-programazioaz gozatzeko aukera uztartuko dituen espazio berri-berrian: **Muxikebarrir Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroa Algortan**.
- Areeta – Romoko erdigunea suspertzea, herritar guztiak gozatzeko moduan. Pertsonak protagonista izango diren espazioa sortzea, horretarako plaza eta alboko kaleak birmoldatuz, lagunkoia eta irisgarriagoak izan daitezten: **Areetako Geltokiko plazarako proposamen berria**.
- Gure kultura-ondarearen garrantzia azpimarratzea, horrela getxoitarrek zein bisitariak aintzat hartu eta gozatu dezaten. Tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituen gozamen, Aisialdi eta erakusketa-espazio aparta: **Punta Begoñako Galeriak berreskuratzea eta duten balioa aintzat hartzea**.
- Gure bizi-kalitatea hobetzea **Getxoko birika berdeetako bat suspertuz**: hiri-espazio natural, irisgarri eta seguru eta berria metroko trenbideen alde bietan eta Aiboako geltokiaren inguruan.
- **Getxon dagoen talentu handiaren balioa azpimarratzea**; horretarako, ikaskuntza- eta sorkuntza-espazioak prestatuko dira ekintzaileei babesa emateko: lankidetzarako zentroa (coworking) Algortan eta urarekin eta nautikarekin zerikusia duten jardueri eta Kirol Portuan itsasoaz gozatzeari lotutako enpresa-mintegia.
- Pertsonen denbora eta energia aurrezteko erraztasunak ematea Getxon segurtasunez mugi daitezten. Horretarako, **mugikortasun iraunkorren eredu berria proposatuko dugu**: Ginzako eta Romo – Areetako aparkalekuak eraikitzea eta lbarbengoak irekitzea, bidegorri-sare handia eskaintzea eta TAO sistema berria ezartzea.
- Administrazio hurbilagoa, dinamikoagoa eta eraginkoragoa izatea, herritarrei emango zaien arreta bizkortzeko eta izapide telematikoak errazteko: **leihatila bakarra** sortzea eta oinarrizko zerbitzuak **modernizatzea**, eguneratzea eta bikaintasuna bilatzea.

2. GETXO, ELKARTUA ETA ANITZA

Pertsona eta bizitza-proiektu guztientzako tokia duen udalerria. Gure konpromisoa gizarte elkartua lortzea da, inor atzean ez uzteko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta errespetuan oinarri hartuta, aniztasuna eta kultura-artekotasuna bultzatzea.

Izan ere, bidezko gizartea izatearen bila jotzen dugu eta horretarako egiten dugu lan, desberdintasun sakonik gabeko gizarte orekatua lortzeko; gizarte horretan pertsona guztiok izan ditzagun geure garapenerako eta bizitzarako behar izango ditugun gutxieneko baldintzak.

EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNA

- Getxoko Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako V. Plana prestatzea eta bideratzea. (Ardatzak: Gobernu ona, Emakumezkoak ahalduntzea, Ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzea eskubideak bermatzeko, Emakumezkoen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak)
- “Emakumeen etxea” proiektua bultzatzea, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten talde, elkarte eta udal zerbitzuak artikulatzeko espazio fisiko eta sinboliko legez.
- Udal-jarduerari zeharkako ikuspuntu orokorretik ekitea, genero-ikuspegia udal-proiektu eta -politika guztietan aintzat hartu dadin.

GETXO LAGUNKOIA: HELDUARO ETA ZAHARTZE AKTIBOA

- Zahartze aktibo eta lagunkoiaren aldeko programak garatzen jarraitzea.
- Aliantza estrategikoa garatzea BBKren gizarte-ekintzarekin, helduaro aktiboa eta jarduera ekintzaileak bultzatuko dira Algortako Urgull kalean duen lokalean.
- Etxebizitza edo egoitza partekatze modu berriak erraztea eta babestea, elkarlaneko etxebizitzak, etxebizitza partekatua, cohousing delakoa eta hornidura-bizitokiak oinarri dituzten proiektuetan.
- Ibar Nagusien Etxea (Romo), Urtealaiak (Getxo-Andra Mari) eta AJANE (Algorta) nagusien elkarteak babestea eta haiekin lankidetzan jardutea; urtean zehar batez ere Aisialdian eta zahartze aktiboan oinarritutako hainbat jarduera antolatzen dituztenez gero.

GIZARTE-BABESA

- Adinekoentzako egoitza eta gazteentzako hornidura-bizitokiak uztartuko dituen belaunaldien arteko zentro berritzailea bultzatzea Erromon. Egitasmo aurrelaria da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzarekin bideratuko dugu.
- Gizarte-laguntzaren arloan diharduten eta gizartean eta erakunde ofizialetan finkatuta dauden elkarteekin elkarlanean ekitea, haien urritasun funtzionalen edo atzerritarrak izatearen edo nazioarteko elkartasunaren ondorioz egoera larrian daudenen alde.
- Honako arlo hauek bultzatzen jarraitzea: etxez etxeko zerbitzua, atsedenerako zerbitzua (zaintzaileak zaintzea), gizarte-hezkuntzarako esku-hartzeak eta esku-hartze psikosozialerako zerbitzua, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua, apartamentu babestuak, babes-etxeak eta gizartean alboratuta dauden pertsonen bideratutako zerbitzuak, besteak beste, Portu Zaharreko Hijas de la Caridad aterpea eta Sortarazi elkarte.
- Getxoko Udaleko kontratazio-pleguetan gizarte-klausulak ezartzea.

2. GETXO, ELKARTUA ETA ANITZA

BIZIKIDETZA ETA KULTURA-ARTEKOTASUNA:

- Herritarren bizikidetzat hainbat eremutan landuko duten programak garatzea (zaratak, auzoei sortzen zaizkien eragozpenak, jokatibide basatiak eta txakurrekin, katuekin eta beste maskota batzuekin bizitzea).
- Hainbat udal-elkarteri lokalak uztea kogestio-erregimenean, bizikidetzat bultzatuko duten gizarte- eta kultura-jarduerak errazteko.
- Bentako eraikina berriz irekitzearen alde ekitea BentaraNoa elkartearekin lankidetzan Getxo-Andra Mari auzoa dinamizatu eta suspertzeko.
- Udal-aurrekontuaren %0,7 garapenerako bidean dauden herrialdeetako lankidetzat-programetara bideratzeko konpromisoa hartzea.
- Euskal Udalerri Lankideen Elkartearen (Euskal Fondoaren) parte-hartzea.
- Euskal Fondoaren bitartez, Europako Batzordearen laguntzarekin hezkuntzat globalean eta nazioarteko lankidetzan parte-hartzeko duten Europako hirien eta eskualdeen “Platforma” delakoaren kide izatea.
- Lankidetzan aritzea garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duen Getxoko elkarte-sarearekin
- LGBTBI kolektiboa ikusgai jarri eta babesten duten jarduerak egiten jarraitzea.

HAURTZAROA, NERABEZAROA ETA GAZTAROA

- Romo Kultur Etxeko “bebeteka” deritzona eta haurrentzako liburutegia eta Areetako Kukupraka ludoteka bultzatzea.
- Aisialdi hezitzailea bultzatzea Romo Kultur Etxeko “Guregun” eta Algortako Urgull kaleko “Gaugun” gaztelekuetako programazioan.
- Romo Kultur Etxeko entsegu-, grabazio- eta entzunaldi-aretoak erabiltzea erraztea gazteen sorkuntzat musikala bultzatzeko aukera legez.
- Irakurketa bultzatzea, gazteentzako liburutegian eta erabilera anitzeko aretoetan berariazko programen bidez.
- Gazteen artean kirola bultzatzea haien bizitzan garapenerako oinarrizko bitarteko eta balioetan hezteko modutzat.
- Oporraldietan gazteentzako ekintzak, programak, udalekuak eta hiri-udalekuak antolatzen dituzten egitasmoak eta elkarteak babestea eta haiekin lankidetzan aritzea.
- Errekaganeko pabiloiak hainbat erabileratarako gaitzeko proiektua bultzatzea gazteei zuzendutako bi proiektuen bitartez: kogestio-proiektu bat eta “Wanted Espazioa”, egitasmoak, ideiak eta ekintzat-egitasmoak bultzatzeko proiektua.
- Gazteentzako kultura- eta Aisialdi-programazioa bultzatzea kultura-ekipamendu berrietatik: Muxikebarri eta Romo Kultur Etxea.
- Gazteen lonjen fenomenoari Gaztelonjak programaren esku-hartzearen eta bitartekaritzaren bidez ekitea.
- Jaietako arriskuak murrizteko programa garatzea.
- Getxoko hiri-lurzoruko Etxebizitza Plana bultzatzea (35 urtetik beherakoentzako etxebizitzak alokairuan).
- 35 urtetik beherakoentzako hornidura-bizitokiak eta aldi baterako konponbide erant eskainitako etxebizitzak sortzea errenta-gaitasun txikiagoa dutelako eta ohiko etxebizitza-merkatuan sartzea ezinezko egiten zaielako.
- Ikasleei zuzendutako Eskolara Lagunekaz programa diseinatzea, ikastetxeetara segurtasunez heltzen erraztuko duten bideak sortuz.

3. GETXO, EKONOMIA ERABERRITZEAREN ETA SORMENAREN GUNEA

Kirolaren, osasunaren, kulturaren, merkataritzaren, turismoaren eta zerbitzu profesional aurreratuen inguruko jarduera ekonomikoak bultzatuz. Jarduera ekintzailean eta berrikuntza sozialaren aldeko apustu argia da, partaide sentitzea, parte-hartzea eta ekonomia, gizarte eta ingurumenaren iraunkortasuna bultzatzeko.

GETXO IDEIEN, BERRIKUNTZAREN ETA SORMENAREN LABORATEGIA.

- Honako eremu estrategiko hauen inguruko tokiko garapena bultzatzea: Industria Kulturalak eta Sortzaileak, Kirolen eta Ongizatearen arloko industriak eta Kultura eta Kirolaren eta Uraren inguruko Turismoa.
- Getxo biziagoaren alde ekitea ekonomia-jarduerak sendotzeko eta, horren bidez, berrikuntzak bultzatzeko eta ideia berriak garatzeko.
- Kulturaren arloko ekintza-zentro delako baten dinamizazioa erraztea (hub kulturala)
- Kirolaren, bitza osasuntsuaren eta ongizatearen industria eta teknologiei lotuta egongo den zentro ekonomikoa sortzea (hub ekonomikoa).
- Enpresa txiki eta handien arteko lankidetzak erraztea
- Unibertsitateen ikerketa-jarduerak babestea ikerketaren emaitzak gizarteari eta ekoizpenari transmititzeko.
- Unibertsitatearen aholkularitza espezializatua erraztea hainbat proiektutan eta udal-kudeaketan.

MERKATARITZA ETA ZERBITZU PROFESIONAL AURRERATUAK

- Gure herriko merkataritza-jarduera eta zerbitzu profesionalak babestea gure udalerriaren erosketa-esperientzia eta bizi-kalitate handia bultzatuko duten programak garatuz.
- Lankidetzan aritzea tokiko merkataritzaren eta enpresa- eta turismo-sektorearen arloetan lan egiten duten Getxoko elkarrekin.
- Getxo kontsumo arduratsuen udalerrir erreferente bihurtzea: tokiko merkataritza-sarea sendotzea eta gertuko eta kalitate handiko elikagaien kontsumoa bultzatzea.
- Algortako merkatua bizkortzea.
- Txandakako hilean behingo merkatua eskaintzeko espazioak eratzea Areetan eta Algortan: aukeren, tokiko produktuen eta 0 km-ko produktuen merkatua, baita moda- eta outlet-merkatuak ere.
- Merkataritza-kaleak egokitzea erakusleihoak apainduz, kaleak eta fatxadak txukunduz eta street art deritzona bultzatuz: geure inguruaz gozatzera kinatuko gaituzten kaleak.
- Hiriko erdiguneetarako sarbidea erraztea, Manuel Gainza aparkalekuaren eta Romo Areetako altuerako aparkalekuaren bitartez (ikusi mugikortasunaren atala)

3. GETXO, EKONOMIA ERABERRITZEAREN ETA SORMENAREN GUNEA

SORKUNTZA ETA EKINTZA-MUGIMENDUA

- Lankidetzeta-ekintzetarako (coworking) beste lokal batzuk sortzea Algortako Urgull kaleko BBKren lokaletan, Areetako Getxo Elkartegian daudenez gain.
- Kirol Portuan nautikari eta itsasoaz gozatzeari lotutako jardueren enpresa-mintegia eraikitzea.
- Udal-espazio eta -eraikinak egokitzea jarduera ekonomikoa bultzatzeko.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari lotutako jarduera ekonomikoa bultzatzea Martiturrin.
- Errekaganeko pabiloiak hainbat erabileratarako gaitzeko proiektua bultzatzea gazteentzako bi proiekturen bitartez: ko-gestio-proiektu bat eta “Wanted espazioa”, gazteek beren kultura- eta gizarte-proiektuak eta proiektu hezitzaileak eta jarduera ekonomikoarekin zerikusia dutenak martxan jarri ahal izateko.

TURISMOA ETA AISIALDIA

- Kirol eta kultura jarduerak bultzatzea nazioarteko ekitaldien bitartez, dinamizazio ekonomikorako eta bisitariak erakartzeko iturri gisa (Punta Galea Challenge, la Kantera Invitational, Getxophoto...)
- Batez besteko egonaldi-denbora luzatzea eta udalerriko turismo-esperientzia hobetzea bisitariari harrera bikaina eginez.
- Beste turismo-bulego bat jartzea Areetan.
- Turismo-egitasmoekin lankidetzan aritzea Getxoko ostatu-gaitasuna handiagotzeko.
- Getxora turismoa, surfa edo antzeko jardueretarako datozen gazteentzako ostatuak bultzatzea.
- Babestutako higiezinetan –eraikin berezi eta bereizgarrietan, batez ere– turismo- eta ostalaritza-erabilerak bultzatzea jarduera horien balioa agerian uzteko.
- Smart turismoa (turismo adimentsua) garatzea gure kirol-, arte-, kultura-, arkitektura- edo natura-ondarearen balioa azpimarratuko duten egitasmoen bitartez.

4. GETXO, KIROLAREN HIRIA BIZKAIKO BADIAN

Aisialdi osasungarrirako, jarduera fisikorako eta kirol-jardueretarako espazio publikoak, besteak beste, etorkizuneko Fadurako parkea, Thinking Fadura prozesu parte-hartzailearen bitartez diseinatua.

Oinarrizko kirolak, kirol- eta gorputz-jarduerak adin guztietako pertsonentzat erraztea, hori da gure funtsezko konpromisoa. Guretzat, kirola eta gorputz-jarduerak pertsonen bizitza garatzeko ezinbesteko bitarteko dira. Besteak beste, errespetuan, elkartasunean, konfiantzan eta taldean lan egiteko balioetan hezteko modutzat ere hartuta.

Gizarte-kohesioaren eta integrazioaren eredu izanik, udalerriko gizarte-bizitzan parte-hartzera eta Getxoko herritarren artean ohitura osasungarriak eta haien ongizatea eragiten duten eragile eta pertsonekin lankidetzan aritzera bultzatzeko.

AISIALDI OSASUNGARRIA ETA KIROLAK

- Fadurako kirol-parke berria
 - Thinking Fadura prozesu parte-hartzailea garatzen jarraitzea
 - Gobela ibaiaren inguruan parke publikoa diseinatzea, yoga, taitxi, kalistenia eta petankan jarduteko eta haurrek jolasteko eremuak izango dituena.
 - La Cervecera kirolari eta kirol-jardueri lotutako zentro sozial eta berrikuntza eta sustapen ekonomikorako polo bihurtzea.
 - Padel eta tenisean jokatzeko instalazio estali gehiago sortzea horretarako den eraikin berrian.
 - Espazioak berrantolatzea beste erabilera batzuk bultzatuz, eta frontoien eraikinean egiturazko birgaitze integrala egitea.
 - Igerilekuen eraikinean dauden espazioetarako irisgarritasuna eta erosotasuna hobetzea. Horretarako, handiagotu egingo dira kanpoko igerilekuetako eremu berdeak eta askaldegia.
 - Udal-estadio berria eraikitzea, udalerriko futbol eta errugbi talde nagusiek bertan joka dezaten. Gaur egun belar naturalez ereinda dagoen futbol-zelaia 6.000 eserleku, gutxienez, izango dituen udal-estadio bihurtuko da.
 - Espazio berria eraikitzea atletismoko entrenamenduetarako.
 - Gaur egungo harmailak guztiz birmoldatzea; horri esker, hobetu egingo dira orokorrean errugbi, hockey eta belodromoaren inguruko jarduerak.
 - Bolueko harmailak estaltzea eta futbol-zelaietako aldagelak hobetzea.
 - Fadurako parke publiko osora heltzeko modua eta bertako segurtasuna hobetzea. Behin eta berriz eskatu da hori prozesu parte-hartzailean.

4. GETXO, KIROLAREN HIRIA BIZKAIKO BADIAN

- Running delakoan jarduteko ohiko ibilbideak aztertzea: argiteria hobetzea, arkitektura-oztopoak kentzea edota ibilbide egoki eta seguruagoak proposatzea.
- Gobelako kirol-instalazioetako mantentze-lanak eta hobekuntzak egiten jarraitzea.
- SASOI SASOIAN sariak bultzatzea kirol-munduari esker ona adierazteko.
- Haurrentzako altzariak eta kirol-altzariak dituzten instalazio berriak ezartzea parke eta bide publikoetan:
 - Kalistenia eta indar/crossfit makinak jartzea Portu Zaharreko zelaigunean.
 - Fadurako kirol-parke berrian parkour delakorako parkea jartzeko aukera aztertzea.

HARREMANA KLUBEKIN

- Kirolaren arloko klubei eta elkarteei laguntzea
- Udalerriko klubena eta kirol-elkarteen “klub-proiektuak” bultzatzea eta proiektuok idazten finantzatzea.

ABRA

- Ur-azalerako sarbidea eta haren erabilera garatzea eta ordenatzea.
 - Portu Agintaritzarekin eta Itsas Kapitaintzarekin lankidetzan, motor bidezko nabigazioa kanpo utziko duen eremua definitzea eta balizatzea, adin txikikoekin kirol-jarduera nautikoak egiteko.
 - Beste pantalan bat jartzea Areetako ontzirekuan.
 - Itsas diziplinetarako kirol-materiala berritzen eta egokitzen jarraitzea.
- Kirol Portua itsasoari lotutako ekonomia eta kirol estrategiarekin uztartzea.

5. GETXO, EMOZIOEN ANTZOKI ETA ABANGOARDIA SORTZAILE

Muxikebarri, Musika Eskola, Romo Kultur Etxea eta goi-mailako kultura eta arte-proposamenekin amets egitea errazten duten beste agertoki batzuk.

Getxo Euskadiko lehenengo postuan jarri nahi dugu kulturaren arloan. Kulturak herri honen bereizgarri izan behar du. Kulturak balioa eman behar digu, betiere pertsonak heztea eta haien proiektuak garatzea erraztuko duen testuinguru positiboan eta herritarrek kultura-programazio bikaina izateko moduan.

Horretarako, kultura-azpiegitura sendoak ditugu: Romo eta Villamonteko kultur etxeak, liburutegiak, Andrés Isasi Musika Eskolaren bi egoitzak: bat Areetan eta bestea Muxikebarri Arte, Kultura eta Kongresu zentroan, Algortan.

MUXIKEBARRI ARTE, KULTURA ETA KONGRESU ZENTRO BERRIA.

- Prestakuntza eta erakusketa uztartzen dituen Bizkaiko espazio bakarra dinamizatzea. Tradizioa eta abangoardia bere 3 agertokietan bateratuko dituen Getxoko kultura-ekipamendu nagusia.
- Getxoko ekonomia-jarduera sortu eta alde zuzenetik zegoena biderkatzea.
- Kultura-erreferente eta erakarpenaren, talentuaren eta profesionalizazioaren foku izatea.
- Getxoko kultura-eskaintzaren garapenaren bultzatzaile izatea, beste eragile publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan.

ROMOKO ETA VILLAMONTEKO KULTUR ETXEAK

- Kultur etxeak udalerriko kultura-elkarteei babesa emateko erreferentzia-zentro izan daitezkeen erraztea.
- Romo Kultur Etxea dinamizatzea, Aisialdira eta gozamenara bideratutako gizarte-programazioaren bitartez. Entsegugelak, grabaketa-estudioak eta aparteko auditoriuma.
- Gure udalerriko 3 liburutegiek eskaintzen duten zerbitzu bikaina babesten jarraitzea.
- Irakurketa eta idazketa bultzatzera bideratutako egitasmoak bultzatzea, Ramiro Pinilla sariaren bitartez.
- AIXEGETXO sariari babesa ematea, udalerriko kulturaren eta sorkuntzari esker ona adierazteko.

BALIO KULTURALA DUEN ONDARE ERAIKIA:

- Punta Begoñako Galeriak Fundazioa martxan jartzea eta UPV/EHUrekin lankidetzan jarraitzea galeriak berreskuratzeko eta horien balioa azpimarratzeko.
- Galeako Gotorlekuaren garrantzia agerian jartzeko plana diseinatzea eta Punta Begoñako Galeriak Fundazioaren proiektuan sartzea.
- Ereagako hegaleko bide-ekipamenduaren azterketa arkeologikoa erraztea: eskalinatoriak, leizeak, iturriak, bankuak...
- Burdinazko Garrikoari lotutako memoria historikoa lantzea.
- Udal-hilerriko ondarearen garrantzia azpimarratzea hilobiratze-forma eta -ohitura berriak integratuz eta espazioak egoikituz.
- Herriko jaiak hobetzen jarraitzea, auzo guztietako jai-batzordeak babestuz eta haiekin lankidetzan arituz, baita jai-programak eta jarduerak diruz lagunduz ere.

6. GETXO, HIRI-INGURU SEGURUA, IRAUNKORRA ETA INGURUMENA ZAINZEN DUENA

Konpromisoa gure auzoetako garbiketa-zerbitzu, hondakinen bilketa, lorezaintza, saneamendu, argiteria eta urarekin.

Getxok bizi-kalitate handia du ingurumen naturalaren eta hiri-inguruaren bizikidetzari esker. Herri lagunkoiagoa, biziagoa eta iraunkorragoa lortzeko egiten dugu lan, herri-bideak oinezkoentzako berreskuratu eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko; azken batean, gure herria erabiltzen duten eta bertan bizi diren herritarren beharriaz erantzuten dien herria lortu nahi dugu.

ETORKIZUNEN GETXO DISEINATZEA

- Etorkizuna diseinatzea Hiri Antolamenduko Plan Orokor Berriaren bitartez. Etorkizuna hobea eta jasangarriagoa izatea erraztuko duten herri eta hiriak lortzeko Agenda Berriaren idealarekin bat eginez, biztanleria mantentzea eta belaunaldien arteko errelebo zentzuduna erraztea da helburua, belaunaldi gazteenek gure udalerrian bizitzeko eta lan egiteko aukera izan dezaten. Era berean, bizitza-errealitate berriei eta ekonomiaren eraketari ere utzi nahi diegu tokia, hartara jarduera profesionalera bideratutako espazioak bultzatuz. Hori guztia genero-ikuspegia, funtzionaltasun-aniztasuna, bizikidetzaren eta osasuna bizitzaren arlo bakoitzean bateratuz egingo dugu (etxebizitza, lana, Aisialdia eta bizikidetzaren).

HIRI-INGURU IRAUNKORRA

- Auzo guztietako parke, kale eta lorategiak apaintzea
- Beste herri-espazio natural, heltzen erraz eta seguru bat sortzea metroaren trenbideen alde bietan eta Aiboako geltokiarren inguruan, herritarren gozamenarako.
- Urkijobasotik Usategira doazen hegala egonkortzea, Satistegi parkea birgaitzea barruan hartuta.
- Gobela ibaiko igarobide ekologikoa garatzea: Zubilletako ibai-parkea diseinatzea eragingo du ingurumena berreskuratzeko proiektuan aurreikusitako ezaugarriak betez.
- Makaleta etorbidea, Fadura eta Salsidu kaleen arteko tartea, Fadurako kirol-parke berriarekin lotura ezarriko duen herritarrentzako kale lagunkoi bihurtzea.
- Iturribarrin haurrentzako jolastoki-eremua izango den plaza berria urbanizatzea.
- Domingo Iturrate eta Puerto Orduña kaleetako azken tartea urbanizatzea eta geratzen den orubean BOE berriak egitea.
- Redentor, Venancio eta Ormaza biribilguneen arteko espazio berria garatzea etxebizitza babestu eta libreak eraikitzeko.
- Areetako Geltokiko plazari bizi berria ematea, herritar guztiak goza dezaten. Pertsonak protagonista izango dituen espazioa izango da, eta plaza bera eta ondoko kaleak birmoldatu egingo dira lagunkoiagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten.
- Romo Kultur Etxearen ingurua urbanizatzea Santa Eugenia plaza handiagotuz eta, horretarako, Aurrezki Kutxa kaleko tarte bat oinezkoen erabilerarako mugatuz.
- Amaia kalea eremu horretako erabilera berriei egokitzea.
- Getxoko estratak hobetzeko eta egokitzeko plana definitzea, HAPO delakoaren antolamendu berriarekin bat etorritik.

6. GETXO, HIRI-INGURU SEGURUA, IRAUNKORRA ETA INGURUMENA ZAINZEN DUENA

INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

- Gure etxe, saltoki eta ostalaritza-lokaletan sortutako hondakinen %50 jatorrian bereiztea lortzea, herritarrak erronkan parte-hartzera bultzatuz eta zereginotan sartuz.
- Getxon konpostaje organikorako planta ezartzea. Trinkotze-plantarekin batera, eskualde-izaera izan dezake Foru Aldundiarekin sinatuko den hitzarmenaren bitartez, era koordinatuan ustiatua izan dadin.
- Hondakinak edukiontzietan biltzeko sistema hobetzea, herritar guztiei hondakinak birziklatzen lagunduz.
- Hondakin handiak biltzeko sistema aztertzea kalean luzaro egon ez daitezen.
- Indarrean dagoen hirigintza-araudian egokitzapenak egitea eraginkortasun energetikoaren arloko jarduketak errazteko.
- Pausoka, isurpenik gabeko udal-flota ezartzea.
- Aurretik prestatutako mantentze-lanen planak ezartzen jarraitzea: ur-sareak (hausturak saihesteko eta kontsumoak murrizteko), saneamendua (euri-uren sareak bereiziz, horrela tratatu beharreko ur kantitatea murrizteko) eta argiteria publikoa (luminariak ordeztzeko), horien guztien eraginkortasunik handiena lortzeko.
- Zugatzarte etorbidean esku hartzea zaratak gutxitzeko; horretarako, ibilgailuen zirkulazio-abiadura murriztuko da.

UDALERRI GARBIA

- Kaleen garbiketa auzoen eta kaleen eta espazio publikoen erabiltzaileen beharrianetara etengabe egokitzea.
- Ordutegiak egokitzea, garbiketa-flotaren zaratek eragiten dituzten eragozpenak murrizteko.

UDALERRI SEGURUA

- Herritarrentzako hurreko polizia-sistema indartzea; horretarako, udaltzainak gehiago agertuko dira. Helburua, ertzainekin batera jokatzuz, herritarren segurtasuna handiagoa izatea da.
- Udalaren segurtasuna zaintzea udal babes-planari jarraituz, betiere larrialdi-zerbitzuekin eta suhiltzaileekin koordinatuta.
- Hirigintza-garapen berrietan puntu ilunak saihestea eta alde zaurgarriak dauden puntu ilunen jarraipena egitea, beste neurri batzuk ezartzeko beharrezkoa izanez gero.

7. GETXO, MUGIKORTASUNAREN ETA IRISGARRITASUNAREN ERREFERENTE

Horretarako, igogailuak, aldapak, garraio publikoa, aparkalekuak, bidegorriak, oinezkoentzako ibilbide berriak eta gure eguneroko bizitzan irisgarritasuna hobetuko duten neurriak ezarriko dira.

Pertsonen denbora eta energia aurrezten lagundu nahi diegu Getxon segurtasunez mugitzen lortzeko. Horretarako, mugikortasun iraunkorraren beste eredu bat proposatuko dugu, pertsona guztientzako herri-espazioak errekuaratzea eta gure merkataritza eta ostalaritza-zerbitzuak indartzea erraztuko duena, gure auzoetan bizitza eta dinamismoa indartzeko asmotan.

ESPAZIO IRISGARRIAK

- Areetako Kale Nagusia eraldatzea eta Geltokiko plaza egokitzea toki atsegina izan dadin, baita beste aparkaleku bat egitea ere Santa Eugenia kalearen eta Ibaigane kalearen atzealdearen artean; aparkaleku hori eremu horretako ekipamenduetarako ibilbideekin lotuta egongo a.
- Aiboako metro-geltokirako sarbidea erraztea: Konporte kaletik igogailuen bitartez eta Euskal Herria eta Iturribarri kaleetatik oinezkoentzako bide berrien bitartez.
- Igogailu bat ezartzea Usategiko parkearen eta Generatxu parkeko oinezkoentzako bide berriaren azken tartearen artean. Gainera, igogailu horrek Usategi jatetxera heltzeko arazoak ere konponduko ditu, baita jatetxe hori berriz ere martxan jartzea ere.
- Arene eta Arenezpi kaleen artean bosgarren elementu mekaniko bat diseinatzea Las Uves deritzon espazioa eta Iturribarri, Euskal Herria eta Alangoko igogailuak lotzeko.
- Beste komun batzuk jartzea pasealeku eta parkeetan.
- Aiboako geltokira Makaleta etorbideetik heltzeko beste elementu mekaniko bat ezartzen utziko duen lurzoru-kudeaketan aurrerapausoak ematea.
- Etorkizunean Portu Zaharra eta Pedro Bilbao plaza eta Obispo Etxeandia kalea lotuko dituen beste igogailu bat instalatzea aurreikusiko duen lurzoru-kudeaketa bultzatzea.
- Particular de Ybarra kalea irekitzea.
- Oinezkoentzako bide seguru eta lagunkoia ezartzea ikastetxeetara eta, besteak beste, kirol, kultura eta osasun ekipamenduetara heltzeko.
- Etxebizitza guztietarako irisgarritasuna hobetzea hirigintza-araudian aldaketak eginez.
- Udal-erakinetan egin beharreko egokitzapenak egiten jarraitzea udal-erakin guztietara pertsona guztiak erraz heltzeko modua lortu arte.

7. GETXO, MUGIKORTASUNAREN ETA IRISGARRITASUNAREN ERREFERENTE

BIDEGORRIAK ETA APARKALEKUAK

- Algortako udal-aparkalekuak bultzatzea:
 - Txandakako Aparkalekua Manuel Gainzan, 243 plazarekin: plaza horiek alokairuan eskainiko zaizkie eremu horretan bizi direnei. Merkatariek, aldiz, abonu bidez erabili ahal izango dituzte.
 - San Nikolaseko eta Alangoko aparkalekuak, 50 eta 103 plazarekin, hurrenez hurren.
- 250 plazako Ibarbengoako disuasio-aparkalekua irekitzea, bizikleta publikoen mailegurako GetxoBizi beste puntu batekin. Gainera, metroko zazpigarren geltokia irekiko da Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin batera.
- Romo – Areetan altuerako 220 plaza inguruko aparkalekua diseinatzea Santa Eugenia kalearen eta Ibaiganeren atzealdearen artean.
- Beste informazio-sistema bat prestatzea lurrazpiko nahiz azaleko aparkalekuetan eskuragarri dauden plaza-kopuruen berri izateko.
- Beste konponbide berri batzuk proposatzea Algorta eta Areta – Romon aparkatzeko:
 - TAO expres.
 - Lurrazpiko nahiz azaleko txandakako aparkalekuen kudeaketa.
 - Egoiliarrentzako TAO ezartzeko aukera aztertzea mugako eremuetan, besteak beste, Santa Anan, Tomás Olabarri kaian, Romon eta Sarrikobason.
 - Udarako TAO sistemaren proposamena Ereagan.
- Udal bidegorri sarearen loturak hobetzea eta 30 km/h-ko eremuak areagotzea bizikleten eta motordun ibilgailuen arteko bizikidetza errazteko.
- Ereagan, Portu Zaharrear, Kirol Portuan eta Olatua deritzon Itsas Geltokian libre dauden aparkalekuei buruzko seinale-sistema adimenduna martxan jartzea. Hori guztia Portuko Agintaritzarekin eta El Abra Kirol Portuarekin batera koordinatuz egingo da.

8. GETXO, ETXEBIZITZEN ALDEKO POSTURA ARGIA

Bereziki bultzatuko dira gazteentzako etxebizitzak, alokairu-erregimenean, eta alde aurretik eraikitako parkea gure herritarren errealitatera eta adinera egokituko da.

Merkatu librean etxebizitzarik eskuratu ezin duten pertsonak etxebizitza egokia izateko aukera izan dezaten egingo dugu lan, Getxon etxebizitza babestuen eta alokairuan dauden etxebizitzaren parkea gaitzen jarraitzeko. Horrela, herritarren beharriaz erantzutea da xedea, gazteentzat eta etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonentzat izango direnak bereziki azpimarratuz.

HIRI-ANTOLAMENDUA ETA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK

- Hiri Antolamendurako Plan Nagusi Berria prestatzea, garapen berrietan babes publikoko erregimen batzuetako etxebizitzaren %75 eraikitzea erraztuko duena.
- Gaur egungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aldaketa zehatzak egitea hiri-lurzoruetan gazteentzako etxebizitzak eskuragarri jartzen jarraitu ahal izateko.
- Gaur egun Iturribarrin, Venacion, Konporten, Sarrikobason, Maidaganen eta Ormazan eskuragarri dauden herri-lurzoruetan babes publikoko etxebizitzak bultzatzen eta eraikitzen jarraitzea, ahal dela alokairu-erregimenean, batez ere Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.
- Udalaren hornidura-lurzoruetan gazteentzako eta adinekoentzako ostatuak bultzatzea edota eraikitzea, udalak bere ekipamenduetarako eskuragarri dituen lurzoruetan (Romon, Martikoenan, etab.), Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.
- Eskuragarri eta hirigintza-kudeaketaren zain dauden herri-lurzoruetan egingo diren bizitexeak udalaren ekimenez trinkotzea, Ormazakoak eta Sarrikobasokoak, besteak beste.

BIZIKIDETZA-EREDU BERRIAK

- Hutsik dauden etxebizitzaren ehuneko bat erabiltzen hasteko politikak ezartzea, batez ere etxebizitza horiek alokairu-merkatuan sartuz.
- Etxebizitza-kopurua handiagotzea bultzatzea, etxebizitzak banatzen lagunduz eta sestren eta teilatu-hegalen azpiko espazioak aprobetxatuz.
- Dendarik gabeko inguruetan, lokalak etxebizitza bihurtzea erraztea, eta etxebizitzak beharrian berrietara egokitzea.
- Etxebizitzak edo egoitzak partekatze modu berriak erraztea eta babestea, kolaborazio-etxebizitzak, etxebizitza partekatuek, cohousing erako eta hornidura-bizitokiak oinarri dituzten proiektuetan.
- Alokairura bideratutako laguntza-lerroa mantentzea, bereziki Getxoko gazteentzat.
- Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren kudeaketa erraztea; izan ere, garrantzi handikoa da eraikinen segurtasun eta irisgarritasun baldintza onetan mantentzea, baita eraginkortasun energetikoa hobetzea ere.

9. GETXO, GARDENTASUNAREN ETA PARTE-HARTZEAREN EREDU

Hori lortzeko, herritarren parte-hartzea eta administrazioaren kudeaketa gardena bultzatuko dira, herritarrei etengabeko arreta eraginkorra eskainiz betiere.

Jarduera publikorako konpromiso arduratsua hartuta, Gobernu irekia defendatzen dugu, herritarrekin harreman hobe eta hurbilagoa lortzeko. Printzipio etikoak gehitu ditugu, besteak beste, kudeaketaren eremuko erantzukizuna, zehaztasuna, zintzotasuna eta errespetua.

HERRITARREI ESKAINITAKO ARRETA HOBETZEA:

- Leihatila bakarra bultzatzea.
- Herritarrentzako Arreta Hobetzeko Plana diseinatzea indarrean dauden administrazio-prozeduren eraginkortasuna hobetzeko eta epeak murrizteko (obra baimenak, obra publikoak...)
- Herritarrentzako arretarako espazioak hobetzea administrazioarekiko ohiko izapideak egiteko (erregistroa, errolda, zergak, baimenak...).
- Izapideak digitalizatzea, bitarteko elektronikoen bidez egitea posible izan dadin eta, besteak beste, online edo txartel bidezko ordainketak egiteko aukera eskaintzeko.
- Udal komunikazioa hobetzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZE BIZIA:

- Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuarekin jarraitzea eta horretarako prozesua hobetzea.
- Udalaren proiektu estrategikoetan, herritarren parte-hartze zuzena bermatzeko foroak eta lantaldeak sortzea bultzatzea.
- Auzoak hobetzeko eredu parte-hartzailea bultzatzea: “Getxo Txukun”.
- Online parte-hartzeko prozesuak garatzea.
- Era bateko zein besteko egitasmoak aztertzea udal ekipamenduen garrantzia azpimarratzeko, besteak beste, Algortako gasolindegi zaharra, Txokeren etxea eta San Martin eraikina.

GARDENTASUNA

- Getxok estatuko udalerririk gardenen artean jarraitzea.
- Udal kudeaketaren gardentasun mailan aurrerapausoak ematen jarraitzea.
- Herritarrei kontuak ematea.
- Webgune gardenago eta eskuragarriagoa garatzea.

10. GETXO, KOSMOPOLITA ETA EUSKADIN SUSTRAITUA

Getxo munduari zabalik dago eta konpromiso bizia du Euskadirekin, euskararekin eta gure kultura eta ohiturekin.

Gero eta globalagoa den mundu honetan, Getxok bere izaera gordez bere burua aurkeztu dezan egingo dugu lan, euskal erakundeekin lankidetzan.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

- Euskara bultzatzeko planaren alderdi guztietan aurrera egiten jarraitzea, getxoztarren artean euskararen erabilera bermatzeko.
- Euskararen eta gure kulturaren normalizazioaren alde lan egiten duten elkarte eta pertsonen egitasmoak bultzatzea eta babestea.
- Gaur egun dauden laguntzetarako eta dirulaguntzetarako lerroak mantentzea, bai elkarteei bai banakoei ematen zaizkien euskara erabili eta ikasi dezaten.
- Tradizioaren eta euskal kulturaren adierazpen anitzak sortzearen garrantzia azpimarratzea (dantza, bertsolaritza, musika, antzerkia...).
- ARGIA EREITEN sariak babestea, euskara babesten, laguntzen edo zabaltzen nabarmendu diren pertsonen edo eragile sozialen lanari esker ona adierazteko.

MUNDUARI ZABALIK

- Getxoren nazioartekotzea bultzatzea eta Europaren proiektuetan parte-hartzea.
- Getxo hainbat eratako kirol egitasmo eta proposamenetan nazioarteko erreferente izaten jarraitzea.
- Mugaz gaindiko topaketak bultzatzea, Getxo aukeren espazio denez gero.
- Iparraldearekin ditugun harremanak estutzea, Donibane Lohitzunerekin senidetuz. Horrela, elkarlanean garatuko ditugu kulturaren, kirolaren eta sustapen ekonomikoaren arloetako egitasmoak.